17. Etxebizitza-tipoa eta hiriaren forma III

1. XX. mendean, behin etxe-irla apurtuta, *Mugimendu Modernoa* izeneko estiloaren eskutik familiabakarreko etxebizitza hilaratu edo lerrokatuak eta familianitzeko bloke linealak agertzen dira.
    - Kiefhoek auzunea, Rotterdam, 1925-29 (J.J.P.Oud). Hilaran antolatutako 300 familiabakarreko etxebizitza. Orubea 4 hektareakoa (dentsitatea = 75 etxebizitza/ha). Perimetroa eraikinez inguratua: Auzune osoa erdi aroko herrixka baten moduan proiektatzen da, aurretik zeuden eraikinok harresia bailiran hartuta, kaleak jerarkizatuz eta kale nagusien bidegurutzean plazatxoa eta eliza ezarriz.
    - Siemensstadt siedlung-a, Berlin, 1929-30 (Hans Scharoun —hiri-plana—, Walter Gropius, Hugo Haring, Otto Bartning eta beste batzuk). Familianitzeko bloke linealak, altuera ertainekoak. 19,3 ha, 1.370 etxebizitza (d = 71 etxebizitza /ha).

2. Mugimendu Modernoa eta ordena irekia: Eraikin altuak, isolatuak eta hiri-unitate gisa hornituak.
    - Narkomfin eraikina, Mosku, 1928-30 (Moisei Ginzburg eta Ignaty Milinis). 54 apartamentu, sukalderik gabekoak. Zerbitzu amankomun guztiak (sukaldea, jantokia, liburutegia, denda) beste eraikinean zeuden, zubi batez irisgarria zena. Estalkian solarium amankomun bat zegoen. Hiri autarkiko eta komunal baten moduan funtzionatu behar zuen. Le Corbusierren *Unité d'Habitation* eraikinaren aurrekaria izan daiteke. Banaketa-hormartea egitura-hormartetik banatzen da. 10,15 metroko sakonera.
    - *Unité d'Habitation*, Marsella, 1947-52 (Le Corbusier). 337 etxebizitza. 24,5 metroko sakonera. Zerbitzu amankomunak (haurtzaindegia, dendak, hotela, solarium, igerilekua). Iparraldera, fatxada itsua; hegoaldera, etxebizitzak biratzen dira.
    - *Robin Hood Gardens*, Londres, 1966-72 (Alison eta Peter Smithson). 213 etxebizitza, 2 ha. 10,5 metroko sakonera. Ipar-izkinean, komunikazio bertikalen gunea; hego-izkinean, Tamesis ibaiarako ikuspegiekin, etxebizitza handienak.

3. Etxe-irlara bueltatzea. 1970. hamarkadaren erdialdera posmodernitatea hirigintzara ailegatzen da. Charles Jencksek Mugimendu Modernoaren bukaera St. Louisko Pruitt-Igoe (Minoru Yamasaki, dorre bikien arkitekto bera) auzunearen eraistearekin bat egin zuela dio (23 hektarea; 11 solairuko 33 eraikin; 2.870 etxebizitza; dentsitatea = 125 etxebizitza/ha; 1955-1972; gaur ez dago ezer, zimenduak eraistea oso garestia delako). Beltzak bizi ziren bakarrik, baina etxeen okupazioak ez zuen %60a gainditu; auzunearen degenerazio-prozesua zela eta, 60. hamarkadaren bukaeran erdi hustuta zegoen, inork ez zuelako bertan bizi nahi; *Koyaanisqatsi* filmeko zatia (zuzendaria, Godfrey Reggio; musika, Philip Glass; 5:30 min).
    - Valdebernardo, Madril, 1989 (Jose Maria Ezkiaga).
    - Palomeras Bajas, Madrileko hegoaldea, 1988 (A. Vazquez de Castro, M. Paredes, F. Prats).
    - Loiolako bazterrak, lehen plana. Donostia (Angel Martin Ramos). Gaur egun 2.684 etxebizitza daude.